

Aurkezpena



Material hau egitea ezinezkoa izango litzateke **Alboan** fundazioko prestakuntza arloko pertsona boluntario, laguntzaile eta langileen laguntzarik gabe.



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

1. DBH-ko lehen zikloan proposatutako hezkuntza materiala

Material honek DBH-ko ikasleekin eskubide eta betebeharren gaia lantzeko proposamen didaktiko batzuk ditu. Proposamen hau hiritartasun kontzeptua landu nahi den prozesu zabalago baten barruan kokatuta dago. Lehendabiziko urte honetan eskubide eta betebeharren gaia landuko da funtsezko lau ideia jorratzen saiatuz.

- Pertsona guztiok eskubideak ditugu.
- Guztienak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak dira.
- Eskubideek betebeharrak dakartzate eurekin..
- Eskubideak zein betebeharrak familian, ikasgelan, auzoan, hirian daude.

Material honekin DBH-n dugun helburu orokorra, hiritar moduan ditugun eskubide eta betebeharrei buruzko kontzientzia hartzea da, eta gure munduaren eraldaketa prozesuan, bidezkoago eta elkarkidetsuagoa den mundu bat lortzeko, protagonista izatea da.

Hezkuntza etapa honi dagokion kurrikulotik , ikerkuntza, analisia, kontrastea eta ebaluaketa biltzen dituzten jarduera desberdinak proposatzen dira, errealitatea eta gure jarreraren aurrean ahalmen kritikoa bilatuz, eta pertsona bakoitzak horren gain duen erantzukizuna onartuz. Horrela, **natur zientzien arloan** ingurugiro osasuntsu bat izateko eskubidea eta errespetatzeko betebeharra lantzen dira; **matematiketan**, desberdina izateko eskubidea eta desberdintasun hori errespetatzeko betebeharra, baliabideak eta sarbideak erraztuz, eta aldi berean emakumeen eskubideak eta etxeko lanen banaketa egiteko betebeharra; **gorputz heziketan**, bakerako eskubidea eta kondenatzeko eta bortizkeria ez erabiltzeko betebeharra; **lengoian** komunikazioa eta espresio askea praktikatzeko eskubidea eta zera errazteko betebeharra; **gizarte zientzietan**, kontsumitzeko eskubidea eta era arduratsu batean egiteko betebeharra, eta aldi berean herriek aniztasun kulturala izateko eskubidea eta berau errespetatu eta kontserbatzeko betebeharra; **ingelesean**, interaktuatzeko eskubidea eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko betebeharra; **tutoretza, etika eta erlijio arloan**, pertsona guztien eskubide eta betebeharren arteko lotura.

Kurrikuluan proposatu diren helburuetatik, hezkuntzaren bitartez, errealitatearen hausnarketa eta analisia egiteko espazio bat izatea baimentzen diguten jarduerak proposatzen dira.

Material honekin lantzen diren helburu orokorrak ondokoak dira:

- Ikaskuntza adierazgarria erraztea, eduki eta informazioaren pilaketa gaindituz, hiritarren alorrean kokatzeko asmoz.



- Ahozko informazioa, ikonikoa, estatistikoa, ... lortu eta erlazionatzea, modu autonomo eta kritikoaz tratatzea, eta besteei modu antolatu eta ulergarrian komunikatzea.
- Simulaketa tekniken bitartez, ikusentzutekoen eta material grafikoaren bitartez pertsona guztientzat baliagarriak diren eskubideak bermaturik egotearen garrantzia esperimendatzea, kausa anitzek eragindako bazterkeria egoerak ukatuz: jatorri soziala, hizkuntza, kultura, sexua, arraza, pentsamoldea, etab...
- Komunikazio egoeratan parte-hartzea eta elkartrukea baimentzen duten arauak errespetatzea: entzutea, hitza errespetatzea, beste iritziak, etab...
- Patrimonio natural, kultural, linguistiko, artistiko eta soziala baloratzea eta errespetatzea, horien kontserbazio eta hobekuntza onartuz, gozamen iturri moduan estimatuz, eta garapen individual eta kolektiborako baliabide moduan erabiliz.
- Bakoitzaren ahalmenaz kontziente izatea ingurugiroaren kudeaketan eta ingurugiro arazoaren konponbidean esku-hartzeko.
- Komunitatearen jardueretan erantzukizunaz parte-hartzea, eta bizitza sozialak eskatu eta onartzen dituen eskubide eta betebeharrak ekiteko prestatzea.

Azken finean, eraldaketa soziala lortzeko eta bidezkoago eta duinagoa den mundu baten eraikuntzan inplikatzeko baliagarriak diren ekintzak proposatzen dira bertan.

Azkenik aipagarria da, **Alboan** irakasleen esanetara dagoela aholkularitza moduan, honi buruz prestatzeko eta hezkuntza proposamen hau praktikan jartzen laguntzeko.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzako proposamena

Zikloan gai hori lantzeko, interesgarri deritzogu irakasleek beraiek zein gurasoek gaiari buruz hausnartzeko eta oinarritzko helburuak zehaztu eta ikastetxeko errealitatera egokitze materiala eta denbora izateari.

Horretarako, orientabide izan daitezkeen agiri bi aurkezten dira: Lehendabizikoan, "*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*" izenburuduna, hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren filosofia azaltzen da. Lortzeko apustua egiten dugun hiritartasun kontzeptua definitu egiten da eta zenbait hezkuntza estrategia zehazten dira.

Bigarrean, "*Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak*", hezkuntza materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, karpeta honetan diren materialak eta poster, bideo, lehiaketak,



mahai-jokoekin osatuta hain zuzen, bai eta Alboan-en aholkularitza eta prestakuntza ere.

Agiri hauek prestakuntza saioetan oinarri izan dakizkieke irakasle zein gurasoei ikuspuntuak trukatzeko, tes-tuinguru zehatzaren inguruko lehentasunak ezartzeko eta proposamenak osatzeko.

Ondoren, prestakuntzarako hiru saiotarako proposamena dugu gaia klaustroan, taldean edo gurasoekin azaltzeko.

1. Saioa:

Aldez aurretik “*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*” agiria banatu da.

1. Talde dinamika: scrabble hiritartasun hitzari buruz.

- a. Irteten diren hitzak komunean jarri.
- b. Hitzoi lehentasuna eman.

2. Hiritartasuna agiriaren gaineko honako galdera hauek planteatzea.

- Agiriaren inguruko argitasunak edo komentarioak.
- Zer dakarkizu burura hiritartasunaren gaiak?
- Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
- Zein zerikusi du zure hezkuntza zereginarekin?
- Ezagutzen dituzun gaia lantzen duten proposamen eta ekimenak.
- Bururatzen zaizkizun zure hezkuntza praktikan beharrezko edo iradokitzaile izan daitezkeen proposamen zehatzak honako honi buruz:
 - Gaiak
 - Metodologia

3. Talde-lana eta komunean jartzea.



2. Saioa:

1. Taldeka, eta aurretik azaldutakoa kontuan izanik, hiritartasuna ikastetxean zein ikasgelan gaiari buruzko diagnostikoa egin.
2. Guztion arteko gaiari buruzko gaineko elkarrizketa.
3. Ikasturtea honetako gaiaren aurkezpena: eskubideak eta betebeharrak.

Agiriaren banaketa: "Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak" eta galdera eta iradokizunak.

Agiria lantzeko kontuak

Gure ikasgeletara so eginez...

- Zein beste elementu sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten duzu zure inguruan? Zein alderdi positibo ikusten duzu gure munduan? Zein puntutaraino uste duzu baliagarri zaiela diagnostiko hau zure ikasleei? Uste al duzu betebeharrak eta erantzukizunak baino, eskubideak dituztela sentitzen dutela?
- Noiz igartzen duzu erantzukizunaren areagotzea zure ikasleengan? Zein egoeraren aurrean? Nola uste duzu susper daitezkeela erantzukizunak ikasleen artean?
- Ikasleekin arazoitzen duzunean errespetua, guztien ongia eta elkarri zaintzearekin zerikusia duten kontuekin erantzule izan daitezen, zein argumentu darabilzu? Nola sentitzen zara zu diagnostikoaren aurrean? Funtsean, non kokatzen zara zure familian, ikastetxean, hirian, munduan..., zure eskubideen defentsa egiten edo zure erantzukizunak jokoan jartzen?

Geure buruari so eginez...

- *Neure betebeharrei dagokienez...*

Gu geu gara gure eskubide eta erantzukizunak noraino heltzen diren hobeto dakigunok, sarri askotan kontratuz eskatzen dena baino harago: Zein betebeharrei deritzet funtsezko garatzen dudana nire hezkuntza lanean? Zeintzuk daude nire "lan" betebeharretik haratago?

Eta hezkuntza komunitateko kide legez: Ze betebeharrak uste dut direla bete behar ditugunak? Nori dagozkio?

- *Besteen eskubideei dagokienez...*

"Eskubide" / "betebeharrak" bikotearen kontzientzia hazten ari da, eta egoera horretan berebiziko garrantzia dute besteen eskubideek (batez ere laguntza gutxien dutenenak). Hezkuntza inguruan ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak, langileak, patronala..., horietaz guztietaz arituko ginatke. Zeintzuk dira euren eskubideak? (ohar zaitetz aipatu ditugun talde ezberdinez) Nola defenda ditzaket?



3. Saioa:

1. Taldeka, galderak komentatu eta ikastetxe zein hezkuntza zikloaren diagnostiko bat egin.
2. Guztien arteko elkarrizketa.
3. Funtsezko helburuak erabaki eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

3. Informazio gehiago lortzeko

Web orrialdeen zerrenda dugu hau informazio gehiago eskuratu eta eskubide eta betebeharren gaiarekin zerkusia duten beste bitarteko batzuetarako aukera izateko.

Hezkuntza proposamenak dituzten orrialdeak

<http://www.derechos.net/links/esp/edu/> HEZKUNTZARAKO ESKUBIDE BEREZIA HEGOAMERIKATAKO HERRIETAN. LINK-AK IRAKASLE ETA IKASLEENTZAKO TRESNEKIN.

<http://www.derechos.net/edu/> HAURRENTZAKO LINK BEREZIAK.

<http://www.pangea.org/edualter/material/ddhh/sedupaz.htm> JOKO DIDAKTIKOAK DITU.

<http://www.hrea.org/> Ingeleseaz. HONAKO HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA :

<http://www.amnistia.org.py/edu.html> NAZIOARTEKO AMNISTIAREN ORRIALDE HEZGARRIA.

<http://www.serpaj.org.uy/revista.htm> IRAKASLEEI BEGIRA.

<http://www.uca.edu.ni/koinonia/varios/ddhh.htm> GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA DU, HERRI BERTSIO BAT, BIBLIAREN AZTERKETA BAT...

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/4propostes/index-esp.html> GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAZ KONTZIENTZIA HARTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK.

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/musica/fichas-indice.html> GIZAKION ESKUBIDE ETA LIBERTATEETAN INSPIRATURIKO KANTA SORTA.

Bitarteko interesgarriak dituzten orrialdeak

<http://www.acsur.org/>.

<http://www.derechos.net/esp/>

<http://www.eurosur.org/spa/derechos.htm>



<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA/>
<http://www.derechos.net/links/esp/foro/> EZTABAIDA FOROekin LOTURA.
<http://www.derechos.net/links/esp/temas/>
<http://www.derechoshumanos.org/> EZTABAIDA FOROA.

Adierazpenak

<http://www.pnud.org/ve/idx/deberes.asp#01>. NAZIO BATUETAKO PROGRAMA. HEZKUNTZAREN INGURUKOA.
<http://www.derechos.net/doc/dudh/> GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA IZAN ZENENKO 50. URTEURRENA. AZALTZEKO ETA IKASTEKO.
<http://www.iepala.es/DDHH/> BOTEREAREN TEORIAREN AZALPENA. NAHIKO ZEHATZA.
http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit2_sp.htm EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK.
http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit3_sp.htm HAURRAREN ESKUBIDEAK.
http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/74_sp.htm. GARAPENERAKO ESKUBIDEA.

Eskubideak eta betebeharrak eremu ezberdinetan

<http://www.oas.org/SP/PROG/pg19-23.htm>. GIZAKIAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN AMERIKAR DEKLARAZIOA.
http://www.educa.rcanaria.es/usr/iespuertor/derechos_y_deberes_alumnado.htm IKASLEEK IKASTETXE BATEAN DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.
<http://averroes.cec.junta-andalucia.es/~29003397/estiloco.htm> IKASTETXE BATEKO IKASLE ZEIN GURASOEN DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.
<http://www.internen.es/compositor/or/DCTS/Derechos.htm> IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ETA IKASTETXE BATEKO ELKARBIZITZARAKO ARAUAK.
<http://www.comadrid.es/inforjoven/cridj/derdebe/derech.htm>. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.
<http://www.uah.es/organizacion/otros/derechosydeberes.shtm>. ALCALÁ-KO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.
<http://www.asamblea.gob.ni/constitucion/deberes.htm>. NIKARAGUAR PARLAMENTARIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.
<http://www.cruzroja.org.ar/volu/debe.htm> ARGENTINAKO GURUTZ GORRIKO BOLUNTARIOEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.



Gorputz hezkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Xedeak

- Norberaren jokabideek, jarrerek eta ekintzek gainerako pertsonengan eta ingurugiroan eragina dutela ulertzea.
- Taldean koordinazioz zein lankidetzaz lan egitea.
- Espresatzeko jaiotasunak lortzea eta gorputz-espresioa zein espresio mimikoa harremanetan jartzeko modu gisa haztea.
- Talde-lana komunitatearen xedeak lortzeko modu ezin hobe gisa balioestea.
- Gerrek dituzten ondorio suntsizaileak ulertzea.
- Bakean bizitzeko eta modu baketsuan jarduteko eskubidea onartu eta balioestea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Makinak ibiltzen”

Deskripzioa: Jarduera honek ondorengo zatiak ditu:

Girotxea: Ikasleei mimika-saiorako makillatzeko esaten zaie. Errazagoa izan dadin, elkar makilla dezakete. Makillajea ezin hobea da keinuen espresibitatea nabarmentzeko.

Jarduerari ekiteko erlaxazio-teknika: musika ezta entzuten delarik, egoera sorrarazten da. *“Pixkanaka desegiten diren kandelak gara..”*, lurrean etzanda geratu arte.

Garapena: zati hau taldeka egiten da. Talde bakoitzak antzeztu nahi dituen bi tresna elektriko aukeratzeko dituzte: irrati-kaseta, garbigailua, telebista... Taldekide bakoitza tresna horren zati da. Gero, tresna ibiltzen antzezten da. Pertsona bakoitzak, modu espresiboan tresna ibil dadin laguntzen du. Gainerako taldeek zein tresna den asmatu beharko dute.

Materiala: Aurpegiko makillajea, musika-tresna eta erlaxatzeko musika.

Dinamika: Taldeka. **Denbora:** Saio bakarra.

Iradokizunak: Behin jarduera bukatuz gero, gogoeta ondorengo ideiar buruz sorraraz daiteke: guztiok, emakume zein gizonok, engranaje beraren zati garela, hau da, norbera funtsezkoa dela mundu hau ibilarazteko, eta gutariko bakoitzaren erantzukizuna, hau honela izan dadila dela. *“Mundua ez dabil ondo gizaki orok ez baditu eskubide eta betebeharrak”* testua duen posterrarekin lotu daiteke hau, hiritar gisa gure beharra mundua ibil dadin eta pertsona orok eskubideak eta betebeharrak izan ditzan dela adierazten baitu.



2 Jarduera:

“Pertsonen kontrako minak”

Deskripzioa: Horra hor jarduera honen zatiak:

1. zatia: Klasea bi taldetan banatzen da -taldeak gaindiezina den lerro batek banatuko ditu- eta bi taldeei egunkari zahar piloa ematen zaie. Minutu batean, talde bakoitzak ahalik eta paperezko bola gehien prestatu behar du. Bola hauek gertatzeaz dagoen gerraren munizioa izango dira. Minutua igaro ondoren, bolagerrari ekiteko seinalea egiten da. Gerrak 5 eta 10 minutu bitartean iraungo du. Taldeek oraindik kemen eta amorrus borrokatzen dihardutenean, gerra bukatu dela jakinaraziko zaie bi taldeei.
 - Bi taldeek, bataila bukatutzat jo ondoren, dena dagoen bezala utziko dute, eta bataila honetatik indarberritzen diren bitartean, irakasleak “bataila-eremuaren” egoeraz (nahas-mahasia, suntsiketeta...) ohartaraziko ditu.
 - Bi taldeek, gerran zehar, zer esan edo oihu egin diote elkarri? Nori oihu egin diote gehien? Zer sentitzen zuten haiei oihu egiten ziotenean? Inoiz norbait gaizki sentitu al da?
 - Zein ondorio dute benetako gerrek jendearengan eta ingurugiroan?
2. zatia: Oraingoan, “bataila-eremua” minaz josita dagoen toki bat izango da. Paperezko bolekin minatuta dagoen eremua itxuratuko dute. Talde bakoitza bere herritik alde egin behar duen errefuxiatu-taldea izango da. Eremuaren txoko batean kokatuko da talde bakoitza. Banaka edo bikoteka, eta begiak estalirik, partaide guztiek eremua minarik zapaldu gabe zeharkatu beharko dute. Mina bat zapaltzen badute, txingoka jarraituko dute. Bi mina zapaltzen badituzte, jokotik kanporatuko zaie.
3. zatia: Jarduera honen bidez nabaritutakoaz aritzeko, egiazko gai hau, hain zuzen, ikasleengandik hain urrun dagoena, ikasleen bizitzetara hurbiltzeko gogoeta proposa daiteke. Elkarriketa pizteko, ondorengo galderak erabil daitezke:
 - Minaz josita dagoen toki batean bizitzeak zer eragozten die bertoko herritarrei? (lan egitea, leku batekin bestera joatea,...).
 - Zuen ustez, nortzuk dira egoera honi konponbide bat aurkitzeko erantzule?
 - Pentsa ezazue zuengandik hurbil dauden kasuetan, hain zuzen, egoerek edo pertsonen (“pertsonen kontrako minak”) beste pertsona batzuk dagozkien eskubideak izatea eragozten dituzten kasuetan. Inoiz “pertsonen kontrako minak” izango bazinete jardun al duzue? Noiz? Uste al duzue pertsona orok duen betebeharra gainerakoen eskubideak ahalbidetzea dela?

Materiala: Toki zabala, paperezko bolak.

Dinamika: Taldeka.

Denbora: Saio bakarra.



Etika - Erlijioa



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Xedeak

- Pertsona orok eskubideak izateak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Norberaren ekintzek gainerakoen eskubideetan eragin handia dutela ulertzea.
- Eskubideen eta betebeharren arteko elkarrekikotasunaz ohartzea.
- Irudimena eta sormena haztea.
- Talde-lanean jarrera laguntzailea izatea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Gure eskubideei gainbegiratu bat egiten”

Deskripzioa: Ikasleei, ikastegia apaintzen duten posterrei gainbegiratu bat egiteko eskatzen zaie. Aldez aurretik, haietako poster bakoitzaren behealdean agertzen diren esaldiak estali dira. Ikasleek, taldeka antolaturik, irudi bakoitzetik ondorioztatzen dena, hau da, posterretan adierazitako zeratik ateratzen duten esanahia eztabaidatuko dute.

Irakasleak talde bakoitzari esaldi-zerrenda bat emango dio. Taldeek poster eta esaldien artean dauden loturak bilatu beharko dituzte, poster bakoitzari esaldi bana emango diotela.

Esaldiak dagozkien posterrekin jarri direnean, posterretan agertzen diren adierazpenetako bakoitza benetan gertatzen den kasu zehatzei buruz gogoeta egitea eskatuko zaie ikasleei. Eta baita, haiek posterren bat edo esaldiren bat gehituko lukeen ere.

Materiala: Posterrak eta 1.1. fitxa.

Dinamika: Taldeka.

Denbora: Saio bakarra.



2 Jarduera:

“Zeintzuk dira gure eskubideak eta betebeharrak?”

Deskripzioa: Taldeka, ondorengoari buruzko gogoeta egingo dute ikasleek: zein eskubide jotzen den oinarritzotzat eta ezinbestekotzat; zein betebeharrak dagokigun eskubide horiek bete eta berma daitezten. Hau egin ondoren, klasea elkartzen da eta honi buruz mintzatzen da. Azkenik, erabakitako guztia jasotzen da eta hutsune handia duen posterra osatzen da, “Zeintzuk dira gure eskubideak eta betebeharrak?” galderari erantzuten zaiolarik.

Materiala: Margoak, errotuladoreak, etab.

Dinamika: Taldeka.

Denbora: Saio bakarra.

3 Jarduera:

“Kontadazu”

Deskripzioa: Ikasleak motibatzen dira, fantasia eta ipuinen mundu liluragarrian sarrarazten, hain zuzen. Banaka, 3.1. fitxan agertzen den ipuina irakurri ondoren, taldeka, gogoeta egiteko prestatu den galdera-multzoari erantzungo diote.

Materiala: 3.1. fitxa

Dinamika: Banaka zein taldeka.

Denbora: 60 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Jarduera hau erlijio-arloan gauzatzeko pentsatu da. Edonola ere, Jesus esplizituki aipatzen duten aipuak alde batera utzita, jarduera hau hezkuntzaren beste arlo batzuetan egin daiteke, esaterako etikan edo tutoretzan.

Fitxa 1.1.

Munduko hiritarrok, gure munduko protagonistak gara.

Eskubideak eta betebeharrak

- Giza eskubideak pertsona guztientzat dira.
- Guztienak ez diren eskubideak pertsona gutxien pribilegioak dira.
- Eskubideak betebeharrak batera doaz.
- Eskubideak eta betebeharrak senidean, eskolan, auzoan, hirian eta abarrean daude.

Eskubide barietate handia daukagu.

Pertsona guztiok eskubideak daukagu.

Eskubide berberak baina era askotan.

Eskubide eta betebeharren artean oreka egon behar da.

Eskubideak errezpetatzen ez direnean...

Mundua ez da ongi ibiltzen guztientzako eskubide eta betebeharririk gabe.

Gure balore eta jarrerak giza eskubideak errespetatzen laguntzen dute.

Gure munduko protagonistak gara.

Zeintzuk dira gure eskubideak eta betebeharrak?



Fitxa 3.1.

Ipuinak entzuten zein irakurtzen hazi gara. Ipuinekin amets egin dugu, hegan egin dugu, mundu fantastikoak irudikatu ditugu...

Zenbat gauza ikasi dugu ipuinetatik? Jesusek ere ipuinekin irakasten zuen, hain zuzen ere, parbolekin. Haien bidez bere mezua modu errazean azaltzen zuen..

Ipuinen edertasuna eta jakituria berreskura ditzagun! Honako hau irakurtzea proposatzen dizuegu. Fantasiak harrapa zaitzaten!

Ura!

Duela urte asko, Ibarridor izeneko herriak gizon bat erbeste-
teratu zuen, eta mendira bizitzera joan behar izan zuen.
Zergatik erbeste-teratu zuten? Herritarren ustez, gizon
erraldoi hark ez zuen hezierarik eta ez zuen bere izu-
garrizko gorputza kontrolatzen. Hartza zirudien. Herriko ba-
kerako eta bizikidetzarako arriskutsua izan liteke.

Ibarridor herriak aldi oro lehortekak izaten zituen, eta uda
hartan putzuak azkenetan zeuden. Ibaia ur-hari hutsa
besterik ez zen. Herritarrak gaixotzen ziren; ortuak eta
utzak alferrik galtzen ziren.

Herri horretan Kandelak eta Kriseilu izeneko neba-
arrebak bizi ziren. Haien ama oso gaixorik zegoen. Ama
sendatzeko ura behar zuten, eta erabaki bat hartu zuten.

Kriseiluk bere arrebari zera esan zion: "Mendietako
zingirara ur bila joan behar dugu. Amatxo hil daiteke".

Kandelak bere nebari zera gogorarazi zion: "Han, duela
urte asko erbeste-teratu zuten gizona bizi omen da. Ogroa
omen da".

Bere nebak esan zion; "Amatxok gizon hori nola jαιο eta
bizi zen kontatu digu. Jende oro bere indarraz baliatzen
zen. Baina inork ez zion etxerik, ez laguntzarik eskaintzen;
inor ez zen hura hezteaz arduratu. Esaten dutena esaten
dutela, ez dut uste hain arriskutsua denik".

Kandelak zera adierazi zuen: "Ados nago. Janari ontzi
pare bat eramango ditugu. Topo egiten dugunean, uraren
truke emango dizkiogu. Ados?"

Mendi tontorrerantz abiatu ziren. Pozarren solasean ari
zirelarik, bat-batean, gizon erraldoi batek oihukatu zion:
"Zeren bila zatozte?". Eta hurrek haien asmoa azaldu zioten.

Erraldoiak esan zion: "Kontu horiek ez dihoazkit niri.
Emadazu janaria!".

Kriseiluk, adorez beterik, zera erantzun zion: "Emaguzu
tontorreko zingirako ur pixka bat eta janaria emango
dizugu".

Hurrek begiak ireki zituzten, harri eta zur gelditu
baitziren. Gizon erraldoiak trukea onartu egin zuen. Janariz



beteriko ontziak hustu zituen. Gero, zingirara joan zen. Berehala, haurren aurrean ur ontzi bi utzi zituen. Kandela pozez gainezka zegoen. Erraldoia ontziak lurtean uzteko makurtu zenean, neskatoak muxu bat eman zion masailan.

Gizon ikaragarriak, aspalditik inolako maitasun-erakusgarririk jaso ez zuenez, irribarre egin zuen, negarrari ekin ziolarik. Bere bihotza, egunero gogortzen ari zena, pozez bete zen eta zera esan zien: "Tori janaria. Nahikoa eta gehiegi dut. Ez zaitetze kezkatu! Zin dagizuet ez zaretela inoiz ere ez egarri izango". Erraldoiak bi oinkada luzez, ura irtetea eragozten zuen harkaitz handi baten aurrean jarri zen. Ibaiaren emaria bete egin zen. Eta zer

gertatu zitzaion erraldoiari? Haurrek ura jaustean sortutako urjauziaren atzetik nola desagertzen zen ikus zezaketen.

Ibarridor jaietan zegoen. Mirari handia izan zela uste zuten bertokoek. Herritar guztiak herriko zaindariaren ondoan zebiltzan prozesioan. Bidean, mendietatik zetozen bi hurrekin egin zuten topo, eta hurrek gertatutakoa kontatu zieten. Hiritarrek elkarri begiratu zioten. Bihotz oneko gizon hura erbesteratzeak lotsarazi zituen. Oroigarri gisa, bere omenez, herriaren izena aldatzea erabaki zuten. Egun horretatik aitzina, herriaren izena "Erraldoiaren Ibarrumel" izan zen.

Iturria: Francia, A eta Sánchez, G (1998).
Educar en valores con cuentos y leyendas. San Pablo: Madril

Eta ipuinaren ondoren...

- Zer adierazi dizue istorio honek? Azal itzazue taldeka ipuin honen ideia nagusiak.
- Ba al daude gaur egungo gizartean "erbesteratuta" dauden pertsonak? Uste al duzue isolamendua edo erbestetasuna direla irtenbiderik onena gizartera moldatzen ez diren pertsonentzat?
- Uste al duzue gatazkarik gabe bizi daitekeela, gizakion artean desadostasunak badaude ere?
- Bila itzazue Biblian istorio hau gogorazten dizueten pasarteak. Nola jarduten zuen Jesussek bere garaiko "erbesteratuekin"? Nola jarduten zuen bere garaiko gizarteak?
- Jesusen mezua eta bizimodua kontuan izanik, zeintzuk dira gizaki baztertuenganako ditugun betebeharrak?
- Kontuan hartzen al dugu beti gainerako gizakiei guri dagozkigun eskubide berberak dagozkiela, eta gure betebeharra eskubide horiek babestu eta errespetatzea dela?
- Zer egin dezakegu gure inguruneko pertsonak uler dezaten gizakien arteko desberdintasunak errespetatzeko dugun betebeharra? Diseina eta gauza ezazue bururatu zaizuen ideiarenekin bat zuten ikastetxean.



Matematika



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Xedeak

- Egoera zehatzak aztertzea eta arazoak konpontzea, aldi berean eragile desberdinak egon daitezkeela balioetsiz.
- Datuak biltzeko teknikak erabiltzea, egoera zehatzei buruzko informazioa jasotzeko, grafiko zein zenbakien bidez adierazteko eta haiei buruzko iritzia izateko.
- Arazo bat konpontzeko konponbide desberdinak daudela ulertzea, kasu bakoitzaren balioespenaren araberakoak.
- Gai eta egoera desberdinen aurrean (generoa, elbarritasuna) enpatia izateko gaitasuna edukitzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Aldaketak erabakitzen”

Deskripzioa: Ikasleak taldeka antolatzen dira rol-joko bat egiteko. Talde bakoitza bere ikastegiko zuzendaritzatalde bilakatuko da, urte horretan bere zentroan egingo diren erosketak eta konponketak eztabaidatu zein adosteko. Aurrekontua adosteko, aldaketa batzuei lehentasuna eman beharko diete, eta beste batzuk, berriz, alde batera utzi beharko dituzte. Talde bakoitza honi buruz mintzatuko da, kartulinen bidez azalpen egokiak egingo dituztela. Azkenik, honekin batera doazkizuen galderak kontuan hartuta, eztabaida bati ekingo zaio.

Materiala: 1.1. fitxa, kartulinarak, errotuladoreak eta 1.2. fitxa.

Dinamika: Taldeka.

Denbora: Saio bakarra.



2 Jarduera:

“Denbora kontua”

Descripción: Beren ingurugiroko hiru gizoni eta hiru emakumeri (esaterako, senideak, lagunak, etab.) inkesta bat egitea proposatuko zaie ikasleei. Inkesta horretan, lan-mota jakin batzuez arduratu ohi dena nor den galdetuko zaie. Behin galde-sortak bete direnean, hauek, grafiko batez, erregistratutako datuen ehunekoak adierazi beharko dituzte. Proposatutako galderei erantzun ondoren, eta grafikoa egin ondoren, lortutako datuei buruzko gogoeta egin daiteke, hain zuzen ere, ondorengo galderak kontuan har daitezkeelarik: Nortzuk ematen dute denbora gehiago etxeko lanak egiten?. Gaur egun, emakume askok etxetik kanpo lan egiten du; egoera honen arabera, etxeko lana gehiago banatzen al da? Zergatik dira emakumeak etxeko lanak egin ohi dituztenak? Zer egin dezakegu eta zer egin behar dugu banaketa zuzena izan dadin? Ez al ditugu guztiok -emakume zein gizon- eskubide berberak?

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Banaka zein taldeka.

Denbora: Saio bat ikasgelaren barruan eta inkestak idazteko denbora nahikoa.

Iradokizuna: Informazio hau, Emakumearen Erakundeek edo Estatistika Erakundeak eman ditzaketen datuekin (herritarrei duela gutxi egindako inkestei buruzko datuak) osa daiteke. Edonola ere, informazio hau **Alboan**en eska dezakezue.

Fitxa 1.1.

Zuen ikastegiko zuzendaritza-taldekoak zarete. Konponketaren bat egitea dabilzue gogoan, baina aurtengo aurrekontua eskasa da. Premiazkotzat jotzen duzuen horri eman beharko diozue lehentasuna.

Aurten bi egoera bitxi daude. Alde batetik, Albertok, irakasle batek, auto-istripu bat izan du, eta honen ondorioz, ezin du ibili. Gurpil-aulkian higitzen da eta ikastegia ez dago behar bezala moldatua. Beste alde batetik, Patricia, ikasle itsua, DBHren 2.mailan matrikulatu da. Ikastegi osoan dagoen itsu

bakarra da, eta horregatik, ez dago materialik braillez.

Era berean, kontuan hartzekoa da ikastetxeko jolastokia ez dela aspalditik konpondu, eta, beraz, berdindu gabe dagoela. Hau dela eta, euria egiten duen bakoitzean, euri-urak putzuak sortzen ditu, eta ezinezkoa izaten da, potxingoak lehortu arte, jolastea zein kirol egitea. Aurrekoaz gain, ordenagailuak zahar samarrak dira: ez dute Internet-en sartzeko konexiorik eta ez dira baliabide anitzekoak (multimedia).

Beste alde batetik, zera ikusi da: ikasleek gero eta zikinagoak dira. Jolas-orduaren ondoren, lurrean bildukiak, jakien zakarreria, paperak, etab. agertzen dira; beharrezkotzat jotzen da, beraz, langile berriak kontratatzea, garbitzaile-kopurua handiagoa izan dadin.

Noski, ez legoke gaizki liburutegirako liburu gehiago erostea, jantokia atontzea...

15.000 €ko aurrekontua duzue zuen eskura.

Erabaki ezazue ondorengo zerrendatik zein den premiazkoena

Konponketa eta erosketa-zerrenda	Prezioa
Ordenagailu berriak	6.114,12 €
Materiala braillez	4.505,59 €
Jantokia atontzea	4.505,59 €
Gurpil-aulkietarako sarbideak (arrapalak)	4.498,62 €
Jolas-tokia konpondu eta berdintzea (saskibaloi-kantxa eta areto-futbolera zelaia)	6.010,12 €

Konponketa eta erosketa-zerrenda	Prezioa
Liburutegirako liburu-sorta	1.202,02 €
Igogailua	5.409,11 €
Garbitzaile-kopurua handitzea	9.616,19 €

Fitxa 1.2.

Eztabaidan jarduteko galderak:

- Zertan oinarritu zarete aukeratzeko? Zergatik uste duzue aukeratu dituzuen gauzak garrantzitsuenak direla?
- Nola konponduko zenituzkete ikastetxean dauden arazoak, hain zuzen, zuen ustez hain premiazkoak ez diren horiek?
- Uste al duzue zuzenagoa dela dirua ikastetxeko pertsona gehienei probetxugarri gertatzen zaizkien gauzetan inbertitzea edo, uste al duzue, ordea, hobe dela pertsona bakar baten behar jakina konpontzen gastatzea (esaterako, Patricia eta Albertoren kasuak)?



Fitxa 2.1.

Egiazta dezagun zertan ematen duten denbora gizonek eta emakumeek. Eman iezaiezue honako galde-sorta hau zuen inguruneko 6 nagusiri: senideak, lagunak, etab.

Egon daitezkeen desberdintasunez hobeto ohar gaitezen, komenigarria litzateke galde-sorta hau, 3 emakumek eta 3 gizonek betetzea.

Galde-sorta Sexua Emakumea Gizona

Zenbat ordu ematen duzu astean ondorengo jarduerak egiten:							
	3 ordu baino gutxiago	3 ordutik 6 ordua	6 ordu baino gehiago		3 ordu baino gutxiago	3 ordutik 6 ordua	6 ordu baino gehiago
Etxeko lanetan				Etxean bizi diren pertsonak zaintzen			
Etxea garbitzen				Seme-alabak hezten			
Bazkaria prestatzen				Aisialdiaz gozitzen			
Lisatzen				Etxetik kanpoko lan ordainduan lan egiten			
Etxeko konponketak egiten				Atsedean hartzen			
Josten							
Arropa garbitzen							
Zarama botatzen							

Taldeka, inkesten emaitzei buruz hitz egin.

- Kalkula ezazue emakumeek jarduera bakoitza egiten ematen dituzten asteko orduen batez besteko aritmetikoa eta egin ezazue gauza bera gizonei dagozkien datuekin.
- Kalkula ezazue, oraingoan, zenbat denbora ematen duten gizonek eta emakumeek etxea zaintzearekin zerikusia duten lanak egiten.
- Kalkula itzazue ehunekoak eta adieraz itzazue emaitzak barradun grafiko batez.

Ingelesa



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Ingelesa komunikazio tresna adierazgarri gisa erabiltzea.
- Ingelesez dauden ahozko eta idatzizko mezuak era egoki eta sortzailean ulertu eta adieraztea.
- Gizartearen funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak analizatzea eta haietaz kontzientzia hartzea.
- Hiritar eskubide eta betebeharrei buruzko irizpide eta jarrera pertsonalak hartzea.
- Publizitatea eta zenbait espresio artistikoei pertsonengan duten eraginaren aurrean izpiritu eta jarrera kritikoa azaltzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Peace & War”

Deskripzioa: Klasea hiru edo lau pertsonatako talde txikietan banandu ondoren, talde bakoitzari 1.1. fitxa ematen zaio, geroago landu dezaten. Lehenengo urratsak gelako kideen arteko ezaguera hobetzea jarraitzen du, gela eta zentroko klimari buruz lan egin ahal izateko. Honela, bigarren urrats batetan, gelan ematen diren betiko arazoei buruz, eta nire arazoez gain, besteen arazoak ere kontuan hartzeko beharri buruz hausnartzea proposatzen da.

Materiala: 1.1. fitxa. **Dinamika:** Taldeka. **Iraupena:** Bi saio.

2 Jarduera: “Slogans”

Descripción: Talde txikietan banaturiko klaseari honako hau eskatzen diogu: eskubide eta betebeharren gaiarekin loturarik duten ingelesez dauden atsegin zaizkien abestien leloak; filmen tituluak; marka ezagunen publizitate esloganak; etab... bildu ditzatela. Materiala lortu ondoren, gelara ekarriko dute eta mezuak analizatzen dituzte:

Materiala: 2.1. Fitxa.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: Bi saio.

Irakokizunak: Hausnarketa, komunikabideek, musika, zine eta publizitatearen bitartez, pertsonengan, eta batez ere haiengan duten eraginari buruz izan daiteke. Publizitatearen aurrean, hiritarrak garen heinean, izan behar dugun izpiritu kritikoa kontziente izatean dago koska.

Fitxa 1.1.

1 In groups of three or four people, try to answer these questions:

Write down a description of a member of your group (the one on your left) answering the following questions:

- Where does he/she live?
- Where does she/he come from?
- Which is his/her favourite subject? And game to play in the playground?
- Which is your favourite music group?
- The whole group together try to find a symbol or adjective that describes each one of the members.

Let us think of the classroom:

- Write down the rules of the classroom.
- Who has chosen them?
- Which ones make the atmosphere of the class more comfortable and peaceful?
- When you are at school, in which situations do you feel at ease?
- Which are the most frequent conflicts in the class and at school?

2 Now, each group thinks of a typical conflict in your class (a discussion, a fight, and so on.). You can imagine a dialogue that represents it. Then, change the situation into a positive way and perform it in front of the whole class.

3 Finally, you can discuss what you have worked in groups with the whole class:

- What are the most frequent conflicts?
- How do we solve them?
- Where are the limits of my rights?
- Do I take into account others' rights when I discuss with others?

Fitxa 1.1.

What is the message?

.....
.....

What does it mean?

.....
.....

What kind of words and expressions does it use?

.....
.....

In which way do you think music, publicity and films influence us?

Music

Publicity

Films

For the discussion

- What messages do we receive?
- Only about my rights?
- What about others' rights?
- And what about our duties and responsibilities?

Natur zientziak



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Xedeak

- Gaztelaniaz “*las tres erres*” direlakoan araua ezagutzea: “*reducir, reutilizar y reciclar*” (gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea).
- Ekologian eragina duten gaiei buruzko informazioa jasotzea: hondakinak, poluzioa, energi iturriak, kontsumoa, bioaniztasuna, etab.
- Informazio iturri desberdinak modu egokian erabiltzea.
- Hitz-jarioa lortzea eta baita jendaurrean hitz egiteko gaitasuna ere.
- Ingurugiro osasuntsua izateko eskubidearen eta ingurugiroa zaintzeko betebeharraren arteko loturaz ohartzea.
- Ingurugiroaren zainketa eta babesaren aurrean jarrera arduratsua hartzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Gure hondakin erantzule”

Deskripzioa: Ikasleek ingurugiroaren zainketari buruz dakitena jakiteko asmoz, hiritarrek honi dagokionez izan behar duten jokabideari ekiten dion jarduera proposatzen da. Horretarako, ikasleek taula bat beteko dute, hain zuzen ere hondakinak hiru ikuspegitatik (gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea) kudeatzeko ezinbestekotzat jotzen dituzten jarraibideez.

Halaber, birziklapenari ekiten dion taula proposatzen zaie, birziklapenaren materialak eta moduak ezagutzen dituzten aztertzeko. Azkenik, irudimenezko ariketa mahaigaineratzen da: nolakoa izango litzateke gure mundua pertsona guztiok, ingurugiro osasuntsua izateko esku-bidea errespetatuz, jokabide arduratsua eta egokia izango bagenu?

Materiala: 1.1. fitxa.

Denbora: Saio bakarra.

Ikusi: Irakasleentzako erantzunak.



2 Jarduera:

“Kamera eta ekin”

Deskripzioa: Ikasleei gai ekologikoei buruzko telesaio bat egitea proposatzen zaie. Horretarako, klasea bost taldetan banatzen da, eta haietako bakoitzak telesaio baten ardurua hartuko du. Klaseak osorik atal desberdinak jasotzen dituen telesaioa prestatuko du. Jarduerari ekin baino lehen, talde bakoitzak egin nahi duen telesaio-mota (albistegia, denbora-pasa, dokumentala, elkarrizketak, etab.) adostea litzateke komenigarria, talde bakoitzak bere gaia aurkeztu nahi duen modua zein formatua aukera ditzan. Gero, ingurugiroaren zaintzearekin zerikusia duten eragin ekologikoari buruzko albisteak bilatu eta ikertuko dituzte edota Rio-ko Batzarran proposatutako *Agenda 21* delako (Batzar horretan ezarritako konpromisoak lortzeko udalen/gobernuen konpromisoak jasotzen dituen toki-agenda) ekimenarekin zerikusia dutenak.

Interesgarrientzat jotzen dituzten albisteak hautatu ondoren, haiek landuko dituzte telesaioa grabatzeko.

Materiala: Internet, ekologia eta ingurugiroari buruzko argitalpenak, bideo-kamera (ahal bada), eta 2.1. fitxa.

Dinamika: Taldeka.

Denbora: Hiru saio.

Iradokizunak: Telesaio bat egiteko baliabide egokirik ez balego, irrati-saio bat egin liteke, edo, telesaioa grabatu gabe utz liteke.

Fitxa 1.1.

Inoiz pentsatu al duzue...

- Produktu bat erostean, behin erabiliz gero, hondakin bihurtzen dela?
- Pertsona guztiok garela sortzen ditugun hondakinen erantzule?

Pentsa ezazue zer gertatuko litzatekeen zuen hiriko zabor-biltzaileak greban baleude.



Argi dago udalak eta gobernuak direla hondakinen erantzule, eta hondakinak egoki kudeatzen saiatzen direla, hiri-tarrantzako informazio-kanpainak egiten. Enpresei eta dendei ere dagokie hondakinak hobeto kudeatzen laguntzea: produktuen paketeak gutxitzen, edo hondakinei buruzko arauak betetzen...

Eta hiritarrok? Zeintzuk dira gure betebeharrak? Gaztelaniaz **“las tres erres”** direlakoan arauaz asko hitz egiten da: **“Reducir, Reutilizar y Reciclar”** (gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea) (garrantzia hurrenkera honetan). Honako hau, baliabideen zarrastelkeria, ingurugiroaren poluzioa eta gastu ekonomikoa bezalako arazoak saihesteko hautabide ona da. Baina, ba al dakigu zer esan nahi duten, zehatz-mehatz, gutxitzeak, berrerabiltzeak eta birziklatzeak? Galdera honetan pentsa dezagun zerrenda betetzen dugun bitartean.

Reducir • Gutxitzea	Reutilizar • Berrerabiltzea	Reciclar • Birziklatzea
<ul style="list-style-type: none"> • Hainbeste gauza erostea beharrezkoa den gure buruari galdetzea. • • • • • 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzak idazteko orriaren bi aldeak erabiltzea • • • • • 	<ul style="list-style-type: none"> • Produktu birziklatuak erostea: papera, arropa... • • • • •

Birziklapenez ari garela...ba al dakizue zer birziklatzen den eta nola egiten den?

Papera – kartoia:

Materia organikoa:

Beira:

Ontziak

Tamaina handikoak (altzariak, etxetresna elektrikoak) eta arropa zaharra:

Hondakin toxikoak eta arriskutsuak (pilak, botikak, pinturak...):

Pertsona guztiok zintzo jokatzek, erantzule izateak eta gaztelaniaz “las tres erres” direlakoan araua betetzen jarduteak, non du eragina? Pentsa ezazue nolakoa izango litzatekeen gure auzoa, gure hiria, gure planeta, pertsona guztiok arau hau beteko bagenu.



Reducir • Gutxitzea	Reutilizar • Berrerabiltzea	Reciclar • Birziklatzea
<ul style="list-style-type: none"> • Produktu freskoak erostea; ontziratutakoak ez erostea. • “Gainpaketaketa” atzera botatzea. • Produktuak egite-prozesuagatik balioestea: prozesuak ingurugiroa errespetatu duen. • Produktu kosmetikoak, garbigarriak, eta oro har, toxiko guztiak (kolak, pinturak...) gutxiago erabiltzea. • 	<ul style="list-style-type: none"> • “Erabili eta botatzeko” produktuen ordeztu berrerabil daitezkeenak erabiltzea; esaterako, paperezko zapien ordeztu oihalezkoak... • Bigarren eskuko gauzak erostea. • Noizbehinka erabiltzen diren produktuak (liburuak, erremintak...) partekatzea. • 	<ul style="list-style-type: none"> • Zabor edo hondakinen gaikako bilketetan kolaboratzea. • Brik, plastiko edo aluminioan baino, paper edo beiran ontziratutako produktuak erostea. • Birziklapen-moduei buruzko informazioa jasotzea. •

Zer birziklatzen da eta nola egiten da?

- 👉 **Papera eta kartoia:** Arras birziklagarria. Ontzi urdinak.
- 👉 **Materia organikoa:** Berreskuratzeko aukera handiak: biogasa eta konposta produzitzea.
- 👉 **Beira:** Erabat birziklagarria. Ontzi berdea. Beira birziklatzeak energia asko aurrezten du.
- 👉 **Ontziak:** Berreskuratzeko eta birziklatzeko dituzten aukerak ontzien legearen ezarpenak handituko ditu. Ontzi horia.
- 👉 **Tamaina handikoak** (altzariak, etxetresna elektrikoak) **eta arropa zaharra:** Talde berreskuratzaileek etxez etxe biltzen dituzte. Atondu ondoren, bigarren eskuko produktuak bezala saltzen dira, edo bigarren mailako lehengai lortzeko birziklatzen dira. Egurrari probetxu ateratzeak basoek jasandako presioa gutxitzen du.
- 👉 **Etxeko hondakin toxikoak eta arriskutsuak:** Pilak, botikak, pinturak, etab. arriskutsuak dira ingurunearentzat. Pilak dendetan eta erakunde laguntzaileetan dauden miniontzietan biltzen dira. Besteei dagokienez, aukera Bilketa Bereziatarako Zentroetan uztea da.

Iturria: “Imagina” Revista de Economía Alternativa. (12.zk.) delako aldizkaritik hartu eta moldatu da. Urria-azaroa. 32.orr.

Fitxa 2.1.

Pertsona orok ingurugiro osasuntsua izateko eskubideari buruzko teleaio bat egingo dugu. Gure helburua ikus-entzuleei gure ingurunean gertatzen diren gaurkotasun-gai interesgarri batzuen berri ematea da. Aldi berean, gure ingurunea zaintzeko (toki-mailan, estatu mailan edo nazioarteko mailan) egiten ari diren ekintza batzuk jakinarazi ahal izango ditugu eta gure ohiturak inguruarekiko egokiak izan daitezen jarraibideak emango ditugu. Agenda 21 delakoak zuen herrian duen ezarpenari buruzko informazioa jasotzea gomendatzen dizuegu.

Taldeka lan egiteko urratsak

1. Taldeka, arituko garen gaia erabakiko dugu: poluzioa, energi iturriak, energia alternatiboak, kontsumoa eta zaborrak...
2. Aukeratu dugun gaiaz zer idatzi den ikertuko dugu. Bila eta hauta ditzagun gure gaiari buruz kaleratu diren albisteak eta artikulatuak. Horra hor haien bila aritzeko zenbait web:
 - a. www.greenpeace.es
 - b. www.ecologistasenaccion.org/home.htm
 - c. www.vidasana.org/noticias.html
 - d. www.ecodes.org
 - e. www.wwf.es
 - f. www.basque-red.net/cas/ecol/ecol.htm
 - g. www.fundacionatura.org/esp
 - h. www.egunkaria.com/gida/erreportaiak/hondakin.html
 - i. <http://www.vitoria-gasteiz.org/ceac/agenda21/indicadores/10informacion.html>
 - j. http://www.udaltalde21.net/ageuskadi_programa.htm
 - k. <http://www.udaltalde21.net/enlaces.htm>
 - l. <http://www.cfnavarra.es/Medioambiente/agenda/Municipios/municipios.html>
 - m. <http://www.cfnavarra.es/Medioambiente/agenda/Municipios/Pamplona/agenda.html>
3. Badugu gure teleaio-atalerako materiala! Nola, zein formatutan, aurkeztuko dugu: dokumental-formatuan, elkarrizketa-formatuan, albistegi-formatuan?
4. Orain, lortu dugun material horren gainean lan egingo dugu, lortutako informazioa egin nahi dugun teleaio-motara moldatzeko. Primeran! Pixka batean entseatu besterik ez dugu egin behar.
5. Dena prest. Kamera eta ekin!

Seguru asko, honako material hau pertsona askori geure ekintzek ingurugiroari nola eragiten eta hondatzen duten jakinarazteko aproposa da. Zergatik ez dugu erabiltzen jendea ingurugiroa zaintzearen garrantziaz zein zaintzeko betebeharez jabearazteko?





Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Komunikazio bitarteko ezberdinak ezagutzea.
- Talde lanetan lankidetzeta eta parte hartze estrategiak eskuratzea era arduratsu eta kritiko batean.
- Dilema moralak argitu eta iritziak adosteko estrategiak erabiltzea.
- Informazio iturri ezberdinak erabili eta aztertzea.
- Komunikazioak harremanetan eta eguneroko bizitzan duten garrantziaz jabetzea, norberak komunikazioa erraztu eta ez oztopatzeko duen erantzukizuna hartuz.
- Pertsona ororen adierazpen askatasun eta informatuta egoteko eskubidea aintzat hartzea.
- Kideak era aktibo eta adeitsuan entzutea

Jarduerak

1 Jarduera: “Komunikatzen”

Deskribapena: Klasea lau taldetan banatuko da. Ikasle batek jarduera gidatuko du taldean. Irakaslea taldeetako arduradunekin bilduko da eta jarraibideak emango dizkie jarduerak iraun bitartean gainontzeko kideak zuzentzeko. Pertsona horiek rol ezberdinak hartuko dituzte: batek jarduera zuzenduko du ahozko eta ahozko ez diren komunikaziorako jarraibideak era zuzenean eta taldearen galdera eta iradokizunei jarraikiz; beste batek soilik ahozkoa ez den komunikazioaren bidezko jarraibideak emango ditu; beste batek ez du egin behar denaz eta egiteko moduz inolako feedbackik eman-go; eta beste batek ahozko komunikazioa zein ahozkoa ez dena erabil ditzake, baina informazioa desitxuratzen duten elementuak sartuta.

Taldeka etxe bat eraiki behar dute, eta horretarako material ezberdina banatuko zaio modu zuzenean talde bakoitzari. Etxe guztiek berdinak izan behar dute. Amaieran jarduera burutzen zutela sentitu dutenaren gaineko hausnarketa egingo da.

Materiala: Artaziak, lekeda, errotuladoreak, arkatzak, kartulinak, fitxa 1.1.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: Saio bakarra.

2 Jarduera: “Zer esan nahi du edertasuna hitzak?”


Deskribapena: Taldeka, edertasunaren garrantzia gizartean zalantzetan jartzen duen dilema moral bat irakurriko dute. Lanpostu baterako elkarrizketa da. Kasua irakurri eta taldean eztabaidatuta koan, egiten diren galderi erantzungo diete erabaki adostu batera iristen ahaleginduz. Ondoren, edertasun idealarekin zerikusia duten gai eta irudien inguruko ikerketa eta dokumentazio lan bat egingo dute. Amaitzeko, irudiaz gehiegi kezkatzeak eragiten dituen ondorio batzuen gainean lan egiteko proposamena egingo da anorexia eta bulimia, edertasun ideala, osasunerako eskubidea edo elikadura egoki baterako eskubidearekin zerikusia duten gai eta irudiak ikertuz.

Materiala: 2.1. eta 2.2. fitxak.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: Hiru saio.

Iradokizunak: Denbora edo ikasleen egoeraren arabera, jarduera labur daiteke edo dauden kasuetako bakar bat lantzea.



Fitxa 1.1.

Taldeak zuzentzeko jarraibideak:

1 Taldea

Etxe bat egingo dugu. Hemen dugu materiala. Etxeak zuria izan behar du, teilatu laranjaduna, balkoi bat eta hiru leiho urdin izango ditu.

Etxea egiten den bitartean taldea anima dezakezu eta nola egiten ari diren esan. Zeuk ere parte har dezakezu egiteko prozesuan.

2 Taldea

Ezin duzu hitz egin, keinuen bitartez ulertu behar zaituzte. Etxe zuria egin behar duzue, teilatu laranjaduna, balkoi bat eta hiru leiho urdin izango ditu.

Egiten duzuen bitartean taldeari aholkuak eta animuak eman diezaiokezu, baina beti hitzik esan gabe.

3 Taldea

Ezin duzu hitz egin ezta keinurik egin ere. Taldeak zer egin behar duen galdetzen badizu edo larritzen bada, zuk berdin segitu behar duzu, hitz egin gabe eta urduri jarri gabe. Seguruenik zure taldekideak beste taldeak ikusiko dituzte eta zer egin behar den jakin ahal izango dute.

4 Taldea

Zure taldeari informazioa ematen diozun bitartean, datu nahasgarriak sartu behar dituzu, egin behar denarekin zerikusirik ez duten elementuak, beste gauza batzuei buruz hitz egin. Galderak egiten badizkizute nahi duzuna erantzun diezaikezu, nahiz eta galdetutakoarekin zerikusirik ez izan. Eman behar duzun oinarritzko informazioa, nahastua izan arren, honako hau izango da:

- Etxe bat egitea.
- Zuria.
- Teilatu laranja.
- Balkoia eta hiru leiho urdin.

Taldeetan hausnartzeko

- Nola sentitu zarete etxea egiten zenutela?
- Komunikazio osoa jaso al duzue? Zer egon da faltan?
- Zer gertatzen da jasotzen dugun informazioa osoa ez denean, mugatuta dagoenean edo nahastuta azaltzen denean?
- Uste al duzue arau batzuk errespetatu behar direla komunikatzean?
- Komunikazioa garrantzitsua dela uste duzue? Zergatik?

Klase osoak hausnartzeko

- Diseinatu dituzuen etxe guztiak berdinak al dira? Zergatik?
- Nola sentitu zarete jarduera gidatu behar izan duzuenak?
- Uste al duzue garrantzitsua dela askatasunez, mugarik gabe komunikatu ahal izatea?

Fitxa 2.1.

Modako arropa-denda bateko jabeak zarete eta lan egiteko pertsona bat kontratatu behar duzue. Egunkarian iragarki bat jarri duzue publikoarekin lan egiten esperientzia duen pertsona bat eskatuz.

Azken egunotan kurrikuluak jaso dituzue eta azkenean lanposturako egokiak izan daitezkeen bi pertsonarekin elkarrizketa egitea erabaki duzue.

Lehenengoa neska bat da. Fisikoki altua eta argala da eta irribarre oso polita du, baina lotsatia eta segurtasunik gabea dirudi, nahiz eta pare bat urtez zerbitzari lanean ibili den.

Bigarrena ere neska da. Ikusi eta edertasun idealetik urrun dago. Nahiko lodia da eta baxu samarra. Baliteke dendan saltzen diren arropetatik bat ere ez izatea bere neurrikoa. Urtebetez egon da okindegi batean lanean eta oso neska atsegina eta irekia da.

- Nor kontratatzea erabaki duzue? Zergatik?
- Pentsa ezazue nola emango zenieketen zuen erabakiaren berri. Bidal iezaiezue gutun bana zuen arrazoiak azalduz.
- Nola sentituko zinategite haiek izan eta errefusatuko bazintuzte?

Ikerketa lan bat proposatzen dizuegu:

<p>❶ Bila ezazue prentsan, iragarkietan etab, pertsonen irudiak. Aztertu eta begira ezazue ea pertsonen irudiak ematean patroiz zehatzak dauden. Nolakoak dira azaltzen ziren gorputzak? Zuen ustez beti izan da horrelakoa? Ezagutzen al dituzue beste garai edo kultura batzuetako irudiak?</p>	<p>❷ Bila itzazue prentsan ezarrita dagoen edertasun idealarekin bat ez datozen pertsonen irudiak darabiltzaten iragarkiak? Erraza izan al da aurkitzea?</p>	<p>❸ Zer ondorio atera ditzakezue ikerketa honetatik?</p>
---	--	---

Taldeetan hausnartzeko:

- Garrantzitsua deritzozue pertsonen irudiari?
- Zeintzuk baldintza dira garrantzitsuagoak zuen ustetan pertsona batengan: atsegina izatea, entzuteko gaitasuna, argala izatea, begi argiak izatea, eskuzabala izatea, polita izatea...
- Nola deskribatuko zenuke zeure burua? Idatz ezazu. Zer nabarmenduko zenuke? Fisikotik, izaeratik, zaletasunak, etab.
- Pertsona guztiek izan behar dituzte aukera eta eskubide berberak itxura fisikoari erreparatu barik. Ados zaudete? Zer egin dezakegu horrela izan dadin? Nola jokatu behar dugu?

Fitxa 2.2.

Gabonak anorexiak jota ez dira Gabonak

Gabonak Espainian familiarekin mahaiaren inguruan ospatu ohi dira. Familia asko eta janari asko. Jai asko ospatzen den garaia da. Baina Espainian anorexia edo bulimia pairatzen duten ia laurogei mila pertsonentzat sufrimendurako egunak dira. Gehienak hamalau eta hogeita lau urte bitarteko neska gazteak dira. Anorexia duten pertsonak obsesionatuta daude gorputzarekin eta **loditzearen** beldur dira. Bulimia dutenek konpulsiboki jan eta gero bota egiten dute. Lau gaztek euren esperientzia kontatu digute eta duten iritzia eman digute. Balancak gaixotasuna gainditu egin du. Carolina tratamenduan dago anorexia dela kausa eta Lourdes tratamenduan dago bulimiaren eraginez. Carolina eta Lourdes egunero joaten dira terapiara. Rodri Carolinaren mutil-laguna da.

Zer da anorexia? Zer da bulimia?

Lourdes (18 urte): Anorexia eta bulimia gauza bera dira. Onartua izatea bilatzen da eta ez soilik gorputzagatik, nor-tasunagatik ere bai. Perfektua izan nahi duzu. Jateari utzita dena konpontzen dela uste duzu.

Carolina (19 urte): Elikaduran eragiten duen buru **arazoa**. Loditzearen beldur itzela da eta eta atzean gauza gehiago dago: hazteko beldurra, bizitzari aurre egiteko, **porrot egiteko**, maitatu eta gutaz gauza bera ez sentitzea, independente izatearen beldur. **Ihes egiteko bide bat** da alkohola izan daitekeen bezala, drogak edo jokia.

Blanca (21 urte): Norbere burua gainditzeko nahia da.

Zergatik izaten dute batez ere emakume gazteek?

Lourdes: Hazi eta **modeloak** eta jende polita ikusten dituzu. Mutilak ezagutu eta haien gustukoa izango zaren gal-detzen diozu zure buruari. Neuk pentsatzen nuen ez nuela ezer balio

Carolina: Gizarteak eta gurasoek gehiegi eskatzen diete gazteei. Orain badira anorexia duten sei eta zazpi urteko haurrak.

Rodri: Errazagoa da nerabeengan eragina izatea. Edertasunari buruzko mezuekin bonbardeatzen dituzte, gorputza, lehiakortasuna, arrakasta, eta ez dago komunikazioa eta nork bere burua onartzeari buruzko mezurik.

Blanca: Ni oso azkar aldatu nintzen eta ez nuen asimilatu. Gutxiago nintzela sentitzen nuen eta lehen bezalakoa izan nahi nuen, haur bat bezalakoa. Hamabi urterekin ideia arraroak izaten hasi nintzen, eta hamahirurekin anorexia nuen. Gehiegi kezkatzen ninduen nire irudiak, jaten nuenak, egiten nuenak oro har.

Prebenitzeko?

Lourdes: Informazio gehiago. Gaixotzean funtzionatzen ez duen zerbait dagoela ohartzen zara baina ezin duzu aldatu. Eta ez duzu besteak konturatzetik nahi. Prebenitzeko gurasoei begirako kanpainak egitea eraginkorr-agoa izan daiteke.

Rodri: Oso zaila da. Gure gizarte honetan irudiak eta gorputzak saltzen dute. Prebenitzea **txip** hori aldatzea da. Eta min handia egin dezaketela esan.

Blanca: Ez da erraza antzematea, izan ere gaur egun edozein neskatilak egiten baitu erregimena. Kilo batzuk kenduta ez zaizula ezer gertatuko pentsatzen duzu. Kanpainak ez dute asko laguntzen eta kontraesanaren zentzua sor dezakete.



Nola aurre egin gaixotasunari?

Blanca: Garrantzitsua da hitz egitea aurre egin ahal izateko. Eta laguntza onartzea. Konplexua da sendatzea loditzea baita eta ez duzu horrelakorik nahi. Hori da zailena.

Lourdes: Terapia taldeekin lan egitea, beste pertsona batzuen testigantzak entzutea. **Ezinbestekoa** da zintzoa izaten behar zaitzaten sentitzen eta egiten duzuna benetan esaten. Dena.

Carolina: Niretzat gaixotasun kronikoa bizitzea zen, sendatu edo hil. Ezin jarrai nezakeen egoera ikaragarri hartan. Orduan ospitale batean egunean hamar orduz ingresatu nuen. Hamazazpi urte nuen, baina jadanik txarto nengoen hamalau neukanetik.

Rodri: Aurre egitea gaixotasuna beste edozeren aurretik jartzea da. Ezinbestekoa da profesionalak bilatzea.

Eta zure inguruko pertsonen erantzuna?

Lourdes: Bazekiten gaixorik nengoena. Gainera drogak eta alkohola ere hartzen nituen. Oso txarto nengoen eta ez nintzen inoiz etxean. Gurasoak izutu egin ziren. Ni Menorcakoa naiz eta Bartzelonara bizitzen etorri nintzen nire ahizparekin terapia egin ahal izateko.

Carolina: Ni oso urduria eta historikoa nintzen, eta gurasoak oihukatzen nituen. Nire aita, oraindik egun, nire erantzunen beldur da.

Rodri: Inguruko pertsonak pazientzia eta optimismo handia behar dute. Oso prozesu luzea da. Garrantzitsua da informatzea lagundu eta lasai mantendu ahal izateko **haserre** momentuetan. Sufritzen duten pertsonak ez dute laguntzarik nahi ez dutelako gaixorik dauden kontzientziarik. Errealitatea nahastu egiten dute.

Blanca: Nire familia harrিতa zegoen. Izugarria izan zen. Etxean oihu, eztabaida ugari eta tentsio handia zegoen.

Nola bizi ditu Gabonak anorexia duen pertsona batek?

Lourdes: **Sufritzen**. Guretzat loditzea da. Ez duzu disfrutatzen eta ez duzu disfrutatzen uzten. Familiarekin agresi-
bo bihurtzen gara eta lagunak ez dituzu ikusi nahi.

Carolina: Beldur handiz. Oso gogorra da. Bazkaldu aurretik geratzen diren orduak zenbatzea da.

Rodri: **Erronka** izan daiteke, oso proba gogorra. Oso gaixorik badaude janaria dela eta sentitzen duten obsesioak beste guztia ezabatzen du.

Blanca: Familian zarela janarien beldur izaten. Besteei baino janari gehiago jarriko dizutela uste duzu, begiratu eta kontrolatzen zaituztela.

<http://education.guardian.co.uk/schools/spanish/story/0,7919,419552,00.html>

1. Talde txikietan, artikulua eta bertan azaltzen diren gaiarekin zerikusia duten argumentuak eta oinarritzko alderdiak komentatu.
2. Informa zaitezte gai horiei buruz (sortzearen arrazoiak, nortzuk paiartu ohi dituzte gaixotasunok,...). Informazioa eskura dezakezuen zenbait web orrialde:
www.chasque.apc.org/chasque2000/informes/marzo-2000/info2000-3-10.htm
www.dobleu.com/categorias/20/290/1338/1339/default.htm
www.terra.com.ar/buscador/salud/alimentacion/trastornos_alimentarios/anorexia_y_bulimia/
education.guardian.co.uk/schools/spanish/story/0,7919,419552,00.html
www.familiadigital.com/ellasabe/show_art.asp?rel=1520&img_tem=Salud
3. Giza Eskubideen Deklarazioan pertsonak osasun eta elikadurarako eskubide dutela esaten bada, behartu ahal dira jan nahi ez duten pertsonak egitera? Zeintzuk dira euren eskubide eta betebeharrak?
4. Aurkez ezazue ikerketa klasean erabilitako argumentuak argi azalduz.

Gizarte-zientziak, Historia eta Geografia



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Xedeak

- Kultur aniztasunaren bereizgarri diren osagaiak ezagutu, aditzera eman eta azaltzea, ezaugarri zein kode desberdinak aztertuz.
- Hizkuntz eta kultur aniztasuna herri eta gizabanakoen eskubide gisa balioestea.
- Edonolako desberdintasun eta bereizkerien zioen azterketa kritikoa egitea.
- Gizarte- eta ekonomi arazoekiko sentikor bihurtzeko jarrera hartzea, eta baita mundu sozio ekonomikoari dagozkion arazoak ikertzeko jakin-mina ere.
- Kontsumitzeko ahalegin pertsonal eta kolektiboa bizitza-kalitatea hobetzeko bide gisa balioestea.
- Nahigabeko ohiturak ezagutzea eta nahitako bihurtzea, jokaera konstruktibo zein solidarioago bilakatu ahal izateko.

Jarduerak

1 Jarduera: “Babel Dorrea”

Deskripzioa: Honako jarduera honetan, aniztasunak harri gaitzala nahi dugu. Ikasleak taldeka banatzen dira. Talde bakoitzari herri batzuen izenak eta bertoko jaki tipikoen izenak emango zaizkio. Jaki bakoitza, ohituraz eta kulturaz, zein herriri dagokion pentsatu eta asmatu beharko dute taldeek (arroza/Japonia; hanburgesa/Ameriketako Estatu Batuak; tea/India; datilak/Maroko; jogurta /Grezia; aguakatea/Mexiko; banana/Kenya) eta ondoren, talde guztiak elkartzean, munduko mapa handi batean. (Peters-en bertsioa gomendatzen da) kokatu beharko dituzte.

Hau egin ostean, irakasleak hauetako herri batzuen (Japonia, Maroko, Grezia, India) hizkuntza eta grafiari dagozkien alfabetoak erakutsiko dizkie ikasleei. Talde bakoitzak, proposatutako alfabeto bakoitza erabiliz, bere lan-taldearentzako izen bat pentsatu beharko du.

Talde guztiak elkartzen direnean, herri bakoitzak bere kultura eta adierazpena izateko beharra zein eskubideari buruz eta kultur aniztasuna egoteak dakartzan alde onak eta alde txarrei buruz gogoeta egitea proposatuko zaie ikasleei. Azkenik, kultur berberatasuna izateko eskubidea errespetatzeko egin daiteken zenbait ideia edo proposamen proposa dakieke.

Materiala: Munduko mapa handia (Peters-en bertsioa), artaziak, zeloa edo txintxetak. 1.1. fitxa eta 1.2. fitxa.

Dinamika: Taldeka.

Denbora: Saio bakarra.

2 Jarduera: “Nork markatzen du erosten duzuna”

Deskripzioa: Ikasleen artean hutsunedun testu bat banatzen da, ikasleek merkataritza-markak idatziz bete dezaten. Hau egin ondoren, norberak kontsumoaren aurrean eta enpresa multinazionalen zereginaren aurrean duen jarrera zalantzan jartzen duen gogoeta proposatuko zaie ikasleei.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Banaka zein taldeka.

Denbora: Saio bakarra.

Bestelako baliabideak: Merkataritza Zuzenari buruzkoak:

<http://www.pangea.org/euskadiv/comercio.html>

<http://www.comerciojusto.com/>


<http://www.eurosur.org/EFTA/sumario.htm>

http://www.sodepaz.org/Comercio%20Justo/comercio_justo.htm




Fitxa 1.1.

Zein herritakoa da jaki bakoitza?. Aurki ezazue jaki bakoitzari dagokion herria




Kenya



Maroko




Mexiko




India



Japonia



Ameriketako Estatu Batuak



Grezia

Fitxa 1.2.

Alfabeto grekoa

Zeinua	izena	ahoskera
A, α	alfa	a
B, β	beta	b
Γ, γ	gamma	g (como galo)
Δ, δ	delta	d
E, ε	épsilon	e (breve)
Z, ζ	dseta	ds
H, η	eta	e (larga)
Θ, θ	zeta	z
I, ι	iota	i
K, κ	kappa	k
Λ, λ	lambda	l
M, μ	mi	m
N, ν	ni	n
Ξ, ξ	xi	ks
O, ο	ómicron	O (breve)
Π, π	pi	p
P, ρ	ro	r
Σ, σ	sigma	s
T, τ	tau	t
Υ, υ	ípsilon	ü
Φ, φ	fi	f
X, χ	ji	j
Ψ, ψ	psi	ps
Ω, ω	omega	O (larga)

Iturria: <http://clasicas.usal.es/diccioned/alfa.htm>

Alfabeto gujaratarra (India)

Silabikoa da. Ezkerretatik eskuinetara idazten da.

Silabario gujarati						
Consonantes						
ક	ખ	ગ	ઘ	ઙ		
ka	kha	ga	gha	nga		
ચ	છ	જ	ઝ	ઞ		
ca	cha	ja	jha	nya		
ટ	ઠ	ડ	ઢ	ણ		
ta	tha	da	dha	ṇa		
ત	થ	દ	ધ	ન		
ta	tha	da	dha	na		
પ	ફ	બ	ભ	મ		
pa	pha	ba	bha	ma		
ય	ર	લ	વ			
ya	ra	la	wa, va			
શ	ષ	સ	હ	ળ		
śa	ṣa	sa	ha	ḷa		
Vocales						
અ	આ	ઇ	ઈ	ઉ	ઊ	ઋ
a	ā	i	ī	u	ū	ri
એ	ૐ	ઓ	ૐ			
e	ai	ō	au			

Iturria: www.proel.org/alfabetos/gujarati.html



Alfabeto arabiarra

Eskuinetatik ezkerretara idazten da

ا	ب	ت	ث	ج
ح	خ	د	ذ	ر
ز	س	ش	ص	ض
ط	ظ	ع	غ	ف
ق	ك	ل	م	ن
	ه	و	ی	

Iturria: http://straddle3.net/ala/0001/s2_caligrafia_arabe.html

Katanaka alfabetoa (Japonia)

Goitik behera eta eskuinetatik ezkerretara idazten da

A	ア	I	イ	U	ウ	E	エ	O	オ
KA	カ	KI	キ	KU	ク	KE	ケ	KO	コ
SA	サ	SHI	シ	SU	ス	SE	セ	SO	ソ
TA	タ	TI	チ	TSU	ツ	TE	テ	TO	ト
NA	ナ	NI	ニ	NU	ヌ	NE	ネ	NO	ノ
HA	ハ	HI	ヒ	FU	フ	HE	ヘ	HO	ホ
MA	マ	MI	ミ	MU	ム	ME	メ	MO	モ
YA	ヤ			YU	ユ			YO	ヨ
RA	ラ	RI	リ	KU	ル	RE	レ	RO	ロ
WA	ワ							WO	ヲ
N	ン								
GA	ガ	GI	ギ	GU	グ	GE	ゲ	GO	ゴ
ZA	ザ	ZI	ジ	ZU	ズ	ZE	ゼ	ZO	ゾ
DA	ダ					DE	デ	DO	ド
BA	バ	BI	ビ	BU	ブ	BE	ベ	BO	ボ
PA	パ	PI	ピ	PU	プ	PE	ペ	PO	ポ

Iturria: www.eanimas.na-web/culturajaponesa/alfabeto



Fitxa 2.1.

Nahita ala nahi gabe, jakinaren gainean ala ezjakinean, multinazionalak ezarritako erritmoan bizi gara. Egunari, hortzak..... delakoarekin garbitzen ekiten diogu.

Etxetik irten baino lehen, gosaltzeko jesartzen gara. Mahaiaren gainean..... potea,..... zereal-kaxa, edo..... zukuak ditugu gure zain. Aparkalekura heltzean, gure..... beribila hartzen dugu. Lanerako bidean, oso gogokoa ohi dut eguneko albisteak jakitea y eta nire..... irratia pizten dut.

Lanean,..... ordenagailu baten aurrean jesartzen naiz. Nire..... erlojuak atsedendia heldu dela jakinarazten dit. Ez dago..... baino gauza hobetik indarrak berritzeko, baina, agian gaur..... botilatxo bat ur edango dut, osasungarriagoa baita. Ordenagailuak burua oso nekatzen du, eskerrak beti..... ditudan nire tiraderan.

Tira, goazen bazkaltzera: nork ekingo dio orain bazkaria prestatzeari? Dena den, ordu pare bat besterik ez ditudanez... Ea zer dudan hemen: primeran!,..... egatz-barratxo batzuk eta postrerako,..... izozki bat. Berriro ere lanera. Tira, gaur lehenago irtengo naiz, eta erosketak egitera joango naiz:..... bakeroak oso merkatuta daude eta nire..... jakarekin ederki ematen dute.

Erosketak egitera joatea nekagarria da, gainera, kontsumismoaren zera nazkagarria da. Beste hautabide batzuk aurkitu beharra dago! Tira, nire..... kiroleko zapatilak hartuko ditut eta bihar bertan footing egiteari ekingo diot. Hara, zortziak dira, eta ordu erdi barru lagunekin elkartzekoa naiz. Tira,..... bat hartuko dut lagunekin, primeran. Hitz batez, joan egin behar dut: bihar goizean goiz jaiki behar izango naiz, baina gaur..... katean pelikula bat ematen dute,..... -ren azken pelikula, hain zuzen. Ez dio ardurarik, nire..... bideoan grabatuko dut, horretarako baitago.

Hara! ez dut arropa garbigailutik atera! Egia esan,..... hauekin gertatzen dena sinestezina da, ia ez dute zaratarik ateratzen.

Oraingoan bai, alde egingo dut. Ohera heltzeko irrikan nago, nire..... koltxoian atsedean hartzeko, hain egun nekatua izan baitut.

Iturria: Arrambidetik moldatua, P M. 1988. Los desposeídos.
Madril: SAN PIO X. Argitaletxea (86.orr.)



Kontsumitu nahi ditugun produktuak aukeratzeko askatasun handia omen dugu. Marka asko omen dago, gure erosketak maiz bideratzen dituztenak. Hala eta guztiz ere, boterea gutxi batzuen eskuetan dago: multinazionalen eskuetan.

Multinazionalak direlakoak enpresa batzuk dira, munduko herri askotatik banatuta dituzten beste enpresa batzuk dituztenak, hain zuzen. Oso boteretsuak dira, ia merkatu osoa kontrolatzen baitute. Multinazionalen jabeak munduko pertsonarik aberatsenak dira. Haien azken helburua beren irabaziak gehitzea da, horregatik, kokatzeko leku bat aukeratzeko dutenean, beti eskulan merke eta lehengaien arabera egiten dute, hau da, gehienetan, kokatu diren herriaren egoera eta beharrak alde batera uzten dituzte, lor ditzaketan mozkinaz baldintzaturik jokatzeko baitute.

Gai honi buruz zertxobait gehiago ulertzeko, zera pentsa dezagun: zer gertatuko litzateke produktuak dagokien multinazionalaren arabera bilduko bagenu? Horra hor zenbait adibide.

Nestlé: Bonka, Nesquik, Eko, La Estrella, Maggi, Chamburcy, Findus, Camy, Kit Kat, Milky Bar, Crunch, Tip Top, Ideal, La Lechera, Flamby, Libby's, After Eights, Friskies, Festival, Smarties, Vichy, Perrier, L'Oreal, Lancome.

Unilever: Calvé, Rexona, Ponds, Lux, Tulipán, Signal, Close-up, Skip, Vim, Chorizos Revilla, Frigo.

Nestlé, Donwe Egbers y General Food: Kafearen merkatuaren %60 kontrolatzen dute: Nescafé, La Estrella, Marcilla, Saimaza, Columbia.

Aurreko adibideak enpresa multinazionalen nagusitasuna eta boterea ikusteko balio zaizkigu. Herri batzuen ekonomia multinazionalen menpe dago. Adibide gisa: Ghana (Afrikako herri bat) Nestlé-k kontrolatzen du.

Orain taldeka pentsa dezagun

Gure eguneroko bizitza kontsumoko jarraibideek markatzen dute. Egunero, produktu-mordoa kontsumitzen dugu.

- Uste al duzue jarrera kontsumista duzuela?
- Zergatik erosten dituzue marka batzuk eta ez beste batzuk?
- Zertan dira desberdin marka batzuk eta besteak?
- Marka horiek ezin badituzue eraman, besteak baino gutxiago zaretela uste al duzue? Zergatik?

Eskaintza handia omen dugu, baina...

- Zer gertatzen da multinazionalen biltzen badugu?
- Zuen ustez, zergatik ezagutzen ditugu guztiok marka berberak?

- Zein da enpresa multinazionalen dute zereginak? Zer deritzezue multinazionalak?

Erosterakoan, ondorengoak bezalako gaiak kontuan hartzen al ditugu?:

- Ingurugiroarekiko begirunea.
- Langileen duintasunarekiko begirunea.
- Justu eta prezio egokian kontsumitzeko betebeharrak...

Pentsa dezagun gai honi aurre egiteko modua. Pertsona kontsumitzaile gisa, erantzukizun eta betebeharrak batzuk dagozkigu.

- Zer egitea bururatzen zaizue?
- Merkataritza Zuzenaren aditzera izan al duzue?

Merkataritza Zuzenak langileei bizitza duina bermatzen die, beren produktuen truke prezio zuzena ordaintzen dielako. Pobrezia txikiagotzen laguntzen du, eta berdintasun zein begirunean oinarritzen da. Haurren esplotazioa eta sexu, arraza zein erlijioagatik bereizkeria gaitzesten ditu. Ingurugiroa errespetatzen du.

Gainera, erosten ditugun produktuak kalitate handikoak dira eta produktu hauek fabrikatzen dituztenen bizitza zein lan-baldintzak ezagut ditzakegu.

